

EUSKAL DEKLINABIDEA

J. V. Zytsar

Artikulu honen helburua zera da: euskal deklinabidearen ahalik eta irudikapen (errepresentazio) linguistiko fidagarriena, trinkoena eta erosoena egitea; irudikapen hau ikasliburu eta ikasmetodo eta gramatika praktikoetan erabiltzeko izango litzateke batipat, euskararen ikaste-prozesuan zehar.

Helburu hau kontuan harturik, besterik gabe eta zuzenean irakurlearen epaipean jartzen dugu euskal deklinabideaz egin dugun eskema, beronen abantailaz argudiorik eskaini gabe; izan ere, gure ustez, kasu honetan arteak zeresan handiagoa bait du zientziak baino, eta jakina denez, artea areago dagokio sentimentuari arrazoiari baino.

Halaber, ez dugu aditzera emango zergatik geure eskema edo taula honetan hautaturiko kasuak ordena batean jarri ditugun edo beste batean, segida batean eta ez bestean. Jakina denez, euskal kasuen zenbakia dela-ta, iritzi desberdintasun sakon eta ugariak daude, muga zeharo zehatzik ez dagoelako eta irizpide zeharo zehatzik ere ez dagoelako euskal kasuak eta euskal atzizkiak berezteko. Gauzak honela daudelarik, askatasun handiarekin jokatu dugu beraien hautapena egitean eta kasuen kopurua ez ugaltzen ahalegindu gara bakarrik, hau da, ahalik eta bariante gutxien izaten, esaterako, R. Lafonek nahi zuenez.

Ondoren, zenbait ohar teoriko eta praktiko egingo ditugu aipaturiko eskemari buruz.

Normalean «mugatua» deritzan deklinabidea dela-eta, ez dugu uste beharrezkoa denik termino hau erabiltzea, zeren eta deklinabide honen bi motak (singularrekoa eta pluralekoa) deklinabide mugatuan bakarrik gerta bait daitezke eta bi mota hauek deklinabide mugagabetik berezten direla gogorarazteko egoki derizkiogu «mugagabe» terminoa sartu eta gordetzeari berau izendatzeko, hau da, deklinabide mugagabea.

Egia esan, azken deklinabide hau izendatzeko nahiago dugu «mugagabe» hitza soilik ez erabiltzea, normalean egin ohi denez, (izan ere, era honetara deklinatzen bait dira halaber toponimoak, antroponimoak e-a bezalako hitz mugatuak ere) baizik eta deklinabide mugagabe-zenbakigabea, kontuan hartu-

rik deklinabide honen eta bi mugatuena arteko oposizioa bera zenbakia isladatzearen edo ez isladatzearen baitan dagoela. Deklinabide mugatuak bere baitan mugatutasun-kategoria ageri duelarik, aldi berean zenbakiaren erlebantizazio-azpisistema da, aitzitik deklinabide mugagabea batipat zenbakiaren irrelebantizazio-subsisistema da (Mitxelena-Villasante). Hau honela izango ez balitz, mugagabea, frantsesezko izenetan artikulua mugagabearekin gertatzen den *fiabardura* bera emango litzateke, zenbakiz kontrajartzen direlarik: *un homme/des hommes*, baina, aldiz euskarazko *gizonek* deklinabide mugagabea ez da «gizonen batek, gizonen batzuk», baizik eta «jendeak» (1judi), zenbaki aipamenik gabe (dirudienez, deklinabide mugatuari mugagabearen barruan lehenengo eta behin *bat* eta *batzu* artikulua izatea kontrajartzen zaio, eta hau honela bada, hain zuzen hementxe ikusten da deklinabide mugagabearen izate zenbakigabea).

Baldin eta lekuzko kasuez aparte singularreko paradigmak ez baldin badu zero markagailua, baizik eta zero markagailua mugagabe-zenbakigabea, lekuzkoa alorrean alderantziz gertatzen da: paradigma zenbakigabea beti elementu markatua da (-ta-), singularrean zero edo /-a/ atzikia delarik.

Pluraleko paradigmak ez du eufoniarik eta beronen formanteak beti /-e/ batez hasten dira (horregatik daude parentesirik gabe eskeman) edozein erroren bukaera delarik ere: *buru-etatik* nahiz *haran-etatik*; aitzitik deklinabide zenbakigabea beti dago eufonia (dagokion letra parentesi artean dago eskeman): *buru-r-i* bokalez bukatutako erroren bukaera denean, baina *haran-i* kontsonantez bukatzen bada, edo *buru-z* baina *oihan-e-z* eta abar. (Lehengo kasuan /-r/ kontsonante eufonikoa da, bigarrenean, /e/ bokal eufonikoa). Honen ondorioz kontsonantezko oinarrien gain posible da kasu guztiak lortzen dituen homonimia bat pluraleko eta zenbakigabeko formena (ez bakarrik /r/ kanpoan gelditzen den kasuetan, baizik eta, bereziki, /e/ derrigorrezkoa den kasuetan) izan ere bat bait datoz kontsonantezko oinarria duten pluraleko eta zenbakigabeko kasuak:

- N.º 4 (*haran-en*), N.º 8 (*haran-engan*), N.º 9 (*haran-engana*).
- N.º 10 (*haran-engandik*) (bokalezko bukaera duten oinarrietan dena desberdin gertatzen da /r/ horregatik).
- N.º 3 *buru-en* pluralean, *buru-r-en* zenbakigabea eta abar.
- N.º 2 (*haran-ek*), N.º 5 (*haran-ez*).
- N.º 6 (*haran-ekin*), N.º 7 (*haran-etako*), N.º 8 (*haran-etan*).

Eta honetatik ondorio edo susmo bat sortzen da, pluraleko deklinabidea zenbakigabearen oinarritik sortua dela, azkeneko honen elementu eufonikoaren bitartez, (bere marka propio bihurtuz) eta ondorioz euskal deklinabideak, oro har, honen heredentziaz aipaturiko homonimiaren jabe egin zela. Singularra aparte gelditzen da zentzu honetan, zeren erlaziozko kasuen alorrean bere markagailua bait du (eta bere soilik) *-a(r)*, jatorri morfologikoa duena. (Artikulu orain arte izen-kasuetan, iraganean, Lafonek dioenez, izenorde erakusle) eta bizigabe lekuzkoen alorrean zero markagailua beste bi tipoetako *-ta-* horren orde, eta horri esker kasuen homonimia (alor honetan) *toponimoen* de-

klinabideko kasuetan bakarrik gertatzen da posible, eta toponimoaren ezaugarri orokorrengatik (jakina denez, edozein deklinabidetan «ezin nahastuzkoak» izaten dira) ia zeharo teorikoa gertatu ohi da. Honela, bada, /e/ eufonikoa gertatzen da ez bakarrik kontsonantezko bukaera duen oinarrian, baizik eta kasu formantearen edozein kontsonanteren aurrean ere, eta singularreko lekuzko kasuetan *an-en* aurrean (*haran-e-an*) agertzea ustekabekoa gertatzen da eta diakronista guztien begiak ernarazten ditu. Euskal deklinabidearen kasuan kopurua, Lafon eta aurrrekoengan, ez da pasatzen 11-tik, gure eskeman bezala, baina bestalde euskal gramatikalarien artean bada joera bat (eta bariante desberdinenetan agertzen da) kopuru hau ugaltzekoa. Behin eta berriz ahalegintzen dira *tzat* atzizkia deklinabidean sartzen, baita *rano/raino/ragino* atzizkiak ere (adlatibo bukatuzkoa) *rantz* (*rontz*, *runtz*) (adlatibo bide zuzenekoa), *rako* (destinatiboa). Azkeneko hau kenduta, aipaturiko atzizki guztiak sartzen dira Euskaltzaindiaren deklinabidearen osakeran (Villasante) eta, noski, hau behin betirakoa dela esan liteke. Nahiz eta atzizki hauetariko lehena berez ezin-berezizkoa den (eta historikoki nekez analizatzen bada ere, **tza-at* bezala, bigarren atala direkziozko kasuaren formantea delarik eta *-tza* lehen atala, berriz, lekuzko kasuena, cf. *tza-ko* azken *ko* hau atributiboa delarik; izan ere, ezaguna bait da beste kasu batzutan ere «para» (dlja) zentzuarekin, normalean posesiboarekin erabiltzen da (n.º 4): *seme-aren-tzat* eta hau lehen aipaturiko euskaltzainek atzizkia den seinale garbitzat daukate, beraz deklinabidean ezin sartuzkotzat jotzen dutelarik.

Egia da, zentzu honetan *gan*, *gana*, *gandik* atzizkiaren kidea dela (eta Lafonek horregatik ez ditu sartzen deklinabidean), baina azpisisistema funtzioa betetzen dute, *-tan*, *-tara*, *-tatik* formekiko simetrian, eta aitzitik, *-tzat* gabe euskal deklinabidea ez da agertzen, oro har, beste edozein atzizki kenduta baino eskasago: cf. *gabe*, *arte* kenduta baino, eta hauek ere ez dute eskatzen beren aurrean genitibozko kasua, halere Euskaltzaindiak eta autore askok ez dituzte sartzen kasuen artean. Eta *-rano*, *rako* atzizkiei dagokienez, eratorriak direlako sentitzen ez bada ere, *-rantz* bezala, direkziozko kasuaren zehaztailuak baizik ez dira, nondik lehen biak eratzen bait dira, eta, deklinabidearen oinarriko osakeran sartuz, pareko erakuntzak lortzen ditugu *gan*-ekin atzizki hauek erantsia (*gane-rano* eta abar.) eta honek inolako zalantzarik gabe adierazten du bigarren mailakoak direla *rako* eta aipatu ditugun abar bezalako atzizkiak. Baina, bestalde, aipaturiko atzizki hauek oso hurbil daude deklinabidetik, eta aldi berean esan liteke, bertan sartzen direla ere, bigarren maila batean, edo bigarren osakera batean. Ez dirudi behin betirakoa denik Euskaltzaindiak deklinabidean eman dion sarrera paraleloak eta dialektikoak baizik ez diren forma sail bati: *tzako* izen bizigabeen singularrean, *-etaz* pluralen ez-en bariante gisa, *baitan*, *baitara*, *baitarik*, ondorengo *gan*, *gana*, *gandik* formekin batera, oso hurbilekoa den *gatik* (kausazko kasua) bizkaierazko *-gaz* (*-ekin* formarekin batera N.º 6) eta abar. Forma paraleloak *-(r)a* eta *-(r)at* (gure eskeman azken kontsonante hauek parentesi artean daude) baita *-gana* eta *ganat*, *-tara* eta *tarat*, *-etara* eta *etarat* ere onartu egin ditu Euskaltzaindiak bederatzigarren kasurako eta hauek ere jatorri dialektikoa dute, baina hau, bistan dagoenez, kasu berezi baf da, –oso zaharra, errotua eta guztiz hedatua bere

bariante horretan (eta direkziozko *-a* halaber direkziozkoa den beste formante historiko baten [t > d] fusio/fisiotik sortua dela esan genezake).

Euskaltzaindiak onartu egiten du *-(e)rik* (*-tarik*, *etarik*), paronimikoa den forma *-(r)ik* partitiboarekiko, baina inola ere ez paradigma guztietarako, pluralerako bakarrik (*menditarik*, *mendititik* formaren ordeza), baita *bat* zenbakizko artikulu mugagabearekin ere zenbakigabeko deklinabidean: *batetik/baterik*. Oro har, hamargarren kasuko *-rik* lapurteraren berezitasun bat da eta honen eraginez eta /r/ kontsonantearen zabalera handiarengatik, deklinabidean oro har atzizki hau legezkoztat emateak zentzu gutxi du, baina izenorde bizidunetan ezaguna da gipuzkeraz ere (*ni-ta-rik*, *ni-ta-tik* erabili ordeza).

Baldin eta eratorri orok (*gan* eta beronen taldeak izan ezik, baina *-en-tzat* barne dela) deklinabidearen «bigarren maila» eratzen badu, begibistakoak edo aitortuak diren atzizkiek (ezarrizko irizpidearen arabera, nahiz ez izan behar adinbat) «hirugarren maila» eratzen dute orduan. Atzizkietan datza lekuzko eta denborazko erlazioak adierazteko funtsezko ahalmena. Batzutan edutezko kasuaren bitartez eta beste batzutan aldian aldiko kasuan lekuzko esanahia duten ohizko lexemetatik nekez berezten dira: Cf. *eliza-(ren) inguruan*, *bazkari-ondoan*, *bazter-aldean*, *etxe-aurrean* eta abar. Laugarren kasua eratzen duen genitibo edutezkoa bera historikoki edutezko bi formanterekin elkarketaz sortua da: /-e/ eta /m/; bi hauetariko lehena /r/ eufonikoarekin arkaisimo batzuren eta izenorde posesibo batzuren osaketan aurkitzen da: *ni-re*, *ni-tik*; *hi-re*, *hi-tik*; *gu-re*, *gu-tik*; *zu-re*, *zu-tik*; *be-re*.

Iruzkina hauetan aipaturikoen artean garrantzi nagusia du deklinabidearen bigarren sailekoei buruzko jarrerak, non sartu behar baita kasuarekin erlazio garbirik ez duen guztia, nahiz eta ez izan atzizkia edo nekez izan ikustekorik atzizkiarekin.

Bibliografiari dagokionez, R. Lafonen (baita J. Allières-en eta beste zenbaiten lanez aparte ondorengo hauek ere erabili ditugu eta goian gogorazi ere bai: Fr. Luis Villasante, «La declinación del vasco literario común», Oñate, 1972; Cfr. I. Omaecheverría, «Declinación Vasca», *Euskera*, 1962, 29-42or.

KASUEN BANAKETA	KASUAK	MUGAGABEA-ZENBAKIGABEA (BEREZIAK ETA ARRUNTAK)	SINGULARRA (ARRUNTAK BAKARRIK)	PLURALA ARRUNTAK BAKARRIK)
LEKUZKOAK (ESPAZIOZKOAK)	1. NOMINATIBOA	∅	-a	-ak
	2. ERGATIBOA	-(ek)	-ak	-ek
	3. DATIBOA	-(r)i	-ari	-ei
	4. GENITIBO POSESIBOA	-(r)en)	-aren	-en
	5. INSTRUMENTALA ADBERBIALA	-(e)z	-az	-ez
	6. SOZIATIBOA	-(e)kin	-arekin	-ekin
	7. PARTITIBOA	(r)ik		
	8. GENITIBO- ATRIBUTIBOA	-(e)ko -(e)tako (ez dago)	-(e)ko ez dago	-etako ez dago
	9. LOKATIBOA	-(e)n -(e)tan -(r)engan	-(e)an -arengan	-etan -engan
	10. DIREKTIBOA			
	11. ADLATIBOA	-era(t) -(e)tarat -(r)engana	-era(t) -arengana	-etara(t) -engana
	-(e)tik -etatik -rengandik	-(e)tik -arengandik	-etatik -engandik	

TOPONIMOAK

IZEN ARRUNTAK
(EZ-PERTSONALAK)
BIZIGABEAK

ANTROPONIMOAK ETA
BIZIDUN ARRUNTAK

IZEN BIZIGABEAK

BIZIDUNEN IZENAK

BIZIGABEEN IZENAK

BIZIDUNEN IZENAK